
Jose Luis Artolak beste lau urtez jarraituko du presidente lanetan

Asteartea, 2006-03-07

Lasarteoriatarrak agintaldi berriko lan ildoak aurkeztu ditu

Jose Luis Artola lasarteoriatarrak beste lau urtez jarraituko du DYA Gipuzkoako presidente lanetan, horrela erabaki zuten joan den igandean Zarautzen egindako Bazkideen Batzar Orokorrean.

Artolak 2002an hartu zuen kargua, eta igandeko batzarrean bere kandidaturak jaso zituen boto gehien.

Datozen urteetarako proposamenak aurkeztu zituen. Bost ildo nagusiren aldeko apustua egin nahi dutela berretsi zuen: heziketa prozesuarekin jarraitzea; osasun zaintza zerbitzua indartzea; gizarte zerbitzuetan egiten duten lanari lehentasuna ematea; osasun larrialdien laguntza eta erreskatea bermatzen jarraitzea eta DYAko boluntarioen heziketa kontuan hartzea.

Bi kezka nagusi

Batzarrean bi kezka nagusi azaldu zituen: boluntarioena eta instituzioena. Lehenengoan kasuan "daudenen fideltasun maila mantentzea eta berriak gaineratzea" ezinbestekoa dela azaldu zuen.

Instituzioen alorrean, DYAko erronketako bat instituzio ofizialekin harremanak sustatzea dela azaldu zuen, "batez ere Gipuzkoako Furu Aldundiarekin".